

## **2007-07-27ko OHIZ KANPOKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko uztailaren hogeita zazpian, eguerdiko 14:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran; M. Jesus Otaño Zumeta andrea, eta Jose Luis Olano Zubeldia jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute Agustin Zubeldia Iraola jaunak, Aitor Lasa Olalde jaunak, Eugenio Loidi Garmendia jaunak eta Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **AURREKO UDAL BATZORDEKO AKTAK ONARTZEA (07/07/19).**

2007ko uztailaren 19ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki zuen Udalbatzak hau onartzea.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO UDALETXEAN MULTIMEDIA ARETOA EKIPATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.**

2006ko irailaren 29ko sarrera datarekin multimedia aretoaren proiekturako dirulaguntza eskatu zen Gipuzkoako Foru Aldundian, i-gipuzkoa2010: udalak programaren barruan. Udal honetan, urte bereko azaroaren 27ko sarrera datarekin, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuko foru diputatuaren agindua agindua jaso zen, honen bidez 14.745,67€ko dirulaguntza eman zitzaion udal honi.

Lanen kontratazioa erabakitzeko, 2/2000 legegintzako errege-dekretuak, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 73.4. artikuluan arautzen duen prozedura negoziatuaren bidez egitea erabaki da. Lege bereko 92. artikulua araututakoa jarraituz, hiru enpresa ezberdinei eskatu zitzaizen aurrekontuak, enpresak ondokoak dira, proposatutako aurrekontua aldamenean dutelarik :

Bienvenido Gil, Donostiakoa.	21.872,58 (BEZ barne)
Gestión X-Lan Informática, Donostiakoa.	22.384,75 (BEZ barne)
Saremática Euskalwireless, Donostiakoa.	13.838,80 (BEZ barne)

Aurkeztutako aurrekontuen edukia, osotasuna eta ulermena kontuan izanik, Bienvenido Gilek aurkeztutakoa gailentzen da besteen artean. X-Lanek aurkeztutakoak osotasun falta nabaria duela esan beharra dago, udalaren beharretara hurbildu baino, udalari atea uzten dio nahi duena jartzeko, gela bere erara ekipatzeko, kontratazio honen helburua oso bestelakoa denean: udalak, bere beharrak beteko dituen gela guztiz ekipatu bat izatea nahi du, muntatuta eta erabiltzeko prest.

Bestalde, erabilerraztasunaren ikuspuntutik, Euskalwirelessen proposamena oso konplexua da eta udalaren beharretatik urrunago, askoz urrunago. Proiektu honek aurkeztutakoa, egun Irurako Udalak duen beharra betetzen duela ezin dugu ziur esan, baina bai bilatzen duen gela motatik asko urruntzen dela, etorkizunean behar bada, beste era batetako zerbitzu bat eskaintzeko aproposagoa.

Aipatutakoak ikusita, Bienvenido Gilek aurkeztutakoa egokiena dela dirudi, udalaren beharretatik gertu, prezio aldetik udalaren aurrekontuen barruan mugitzen da, erabil erraza, neurriko konplexutasuna du eta etorkizunean ekipamendua gehitzeko aukera ematen du.

Honenbestez, kontratua enpresa honi esleitzea egokia iruditzen zait. Bere zerbitzuak kontratatzeke, aipatutako 2/2000 legegintzako errege-dekretuak, ekainaren 16koak, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 171. artikuluan arautzen duenaren arabera, hornidura kontratu baten aurrean gaude. Kasu hau, 177. artikuluan ezartzen diren diru baldintzetatik at gelditzen denez, posiblea da iragarri gabeko prozedura negoziatuaren bidez aurrera eramatea.

Aipatutakoa ikusirik, udal zerbitzuetako arduradunaren txostena ikusirik eta jasotako aurrekontuak bere osotasunean ikusirik, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Irurako Udaletxean multimedia aretoa ekipatzeko kontratua Bienvenido Gil, S.L. enpresari esleitzea erabaki du. Aipatutako enpresari erabakia jakinarazi egingo zaio eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeak bere 20. artikuluan ezarritako kontratatzeke debekuetatik kanpo dagoela egiaztatu beharko du kontratua berari behin betikoz esleitzeko, bai eta zerga eta gizarte segurantzako betebeharren ordainketak eguneratuak dituela ere.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**HIRUGARREN GAIA**

**ONARTZEA, BADAGOKIO, CESPAREKIN HIRI HONDAKINAK ETA  
HAUEN TANKERAKOAK JASOTZEKO EGUN DAUKAGUN KONTRATUARI  
AMAIERA EMATEA.**

1998ko martxoaren 25ean, Juan Galarraga Huegunenkin hitzarmena sinatu zen, etxeetako zaborrak biltzeko zerbitzua eman zezan. Zerbitzua, 1998ko martxoaren 1etik hasita, 2 urtetan zehar eman beharko zuen eta beste bi urtez luzatzeko aukera ere bazegoen.

Ondoren, hainbat aldaketa egin zaizkio kontratuari, prezioak berrikustea barne, ohiko zabortegia lekuz aldatzeagatik. Hauek dira azken bi aldaketak:

- 2005eko otsailaren 1ekoa, kontratua 2006ko martxoaren 1a arte luzatzen duena, edo martxan jarri arte udal hau parte den Eskualdeko Mankomunitatearen zabor-bilketaren eskualdeko zerbitzua.
- 2005eko uztailaren 26koa, soldatak berraztertzean jarritako prezio berria zehazten duena. 2005erako prezio berria, hilean 2.255,23€koa da, BEZ barne.

2005-11-08 datarekin sarrera eman zitzaion Juan Galarraga Huegunek eta CESPÀ, S.A. enpresak sinatutako idatziari, eta bertan eskatzen zuten aipatutako kontratua CESPÀ, S.A.-ri lagatzea.

Udal honetako osoko bilkurak 2006ko urtarrilaren 24an, besteak beste, aho batez onartu zuen Irurako etxeetako zaborrak biltzeko kontratua CESPÀ, S. A.-ren aldeko lagatzea baimentzea, baldintza hauetan:

- a) Kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztien subrogazioa.
- b) Era guztietara, kontratua 2006ko martxoaren 1a arte luzatuko da, edo Tolosaldeko Eskualdeko Mankomunitateak zabor-bilketaren zerbitzua bere gain hartu arte, data hori baino lehen gertatuz gero.
- c) Kontratuaren prezioa handitu denez, fidantza-kopuru berri bat zehaztu behar da, 3.000 €-koa. Fidantza udalaren kutxan ordainduko da, erabaki hau jakinarazi eta 15 eguneko epean gehienez ere, eta indarrean dagoen araudian zehazten den moduren batean.
- d) Kontratistak dagokion kontratua sinatu behar zuen administrazio-agirian, erabaki honen berri jaso eta 15 eguneko epean gehienez ere.

Bestalde, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak, 2007ko urtarrilaren 22ko bilkuran, Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan hiri-hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratazioaren Espedientea onartzea erabaki zuen. Horrekin batera, Klausula Tekniko eta Administratiboen Orriak onartu, eta zerbitzua esleitzeko prozedura ireki zuen, lehiaketa irekiaren bidez gauzatzeko.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu ondoren, Tolosaldeko

Mankomunitateko Kontratazio Mahaiak proposatu zuen, 2006ko apirilaren 23ko batzar-agirian agertzen denez, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS eta ZERBITZU ELKARTEA enpresek osatutako ABEEri ematea.

Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2007ko maiatzaren 7ko bilkuran erabaki zuen FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS eta ZERBITZU ELKARTEA enpresek osatutako ABEEri esleitzea Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan hiri-hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratazioa. Betiere, onartu diren Klausula Administratibo Partikularren Orriei eta kontratistaren proposamenean jasotako zehaztapenei jarraiki.

Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako Hiri Hondakinak Jasotzeko eta Garraiatzeko kontratatutako Zerbitzua 2007ko irailaren 1etik aurrera ematen hasiko da.

Hiri hondakinen jasotzea eta dagokien tratamendu zentrora garraiatzeko kontratua esleitzeko lehiaketa arautzen duten Baldintza Plegu Ekonomiko-Administratiboak kontuan hartuz, eta 2/2000 legegintzako errege-dekretuak, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenak, besteen artean, 112., 168. eta 170. artikuluetan arautzen dutenaren arabera, Irurako Udal honek egun indarrean dagoen kontratuari amaiera eman beharko dio eta, jakinarazi CESP, S.A. enpresari, 2007ko abuztuaren 31an, egun indarrean dagoen hiri hondakinen jasotze eta dagokien tratamendu zentrora garraiatzeko kontratuari amaiera emango zaiola.

Honen aurrean, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, aipatutako dekretuaren jakitun gelditzen dira.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**LAUGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, 5. ZONALDEARI BURUZKO**  
**XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN BETIKO IZAERAZ.**

2007ko maiatzaren 17an, alkatetza dekretu bidez, behin behineko onarpena eman zitzaion Jokin Iraola Elosegik, Kikilau S.L.-ren izenean, aurkeztutako Irurako Hirigintz Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 5. zonari buruzko xehetasunezko azterketari. Berau, Jose M<sup>a</sup> eta Karmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzitako proiektu teknikoaren arabera da eta 2007ko apirilaren 12an dagokion Elkarte Profesionalak bisatua.

Xehetasunezko azterketa honen definizio eta eraketarako zonalde berri honen ordenazioa konfiguratzea beharrezkoa izan da, eta ikerketa honen bidez, eraikiko diren etxebizitzak aprobatazear dauden herriko Arau Subsidiarioen aginduetara egokituko dira.

Espedientea informazio publikoan 20 lan egunez egon ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia ezarriz 2007ko maiatzaren 29an eta gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuz, alegazio bat aurkeztu da:

- Ramon Arruabarrena Gonzalezek, Irurako Kale Nagusiko 14.ean helbidea duenak azaltzen duenez, xehetasunezko azterketak bere jabetzako terreno pusketa batengan eragiten du eta berea ez balitz bezala kontsideratzen du azterketa honek bere sail hori. Ez du dokumentu gehiago aurkeztu. Lur eremu hori berea dela kontuan izatea da eskatzen duena.

Aurkeztutako alegazioari buruz, bi gauza dira esan beharrekoak: batetik, espedientera dokumentu gehigarri gehiagorik atxiki ez denez, ezer gutxi froga daitekeela eta are gutxiago inori arrazoa eman; bestetik, xehetasunezko azterketa honek ez duela inoren jabetza zalantzan jartzen eta ez dela horretarako aurrera eramaten den prozesu bat, xehetasunezko azterketak antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira. Plangintzan aurrikusita ez badago, xehetasun azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.

Foru Aldundiko Errepideetako Departamentuari txosten bat egitea eskatu zitzaion, eta honek aldeko iritzia eman zuen 2007ko ekainaren 25eko erabakiaren bitartez.

Orain beraz, hala irizten bada, behin betiko onarpena ematea dagokio, eta honen eskuduntza Udalak du 2/2006 legeak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, bere 98. artikulua araberak.

Onarpena emateko eskuduntza materiala, zehazki, Udaleko Udalbatzari dagokio, indarrean dagoen 7/1985 legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, ezartzen duenaren araberak eta plenora bertaratutakoen gehiengo osoaren oniritziarekin.

Behin betiko onarpena eman ondoren, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta honekin bere exekutibitatea hasiko da.

Honetaz gain, Udala aholkatzen duen arkitektuaren txostena ere kontuan hartuz, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, 5. zonaldeari buruzko xehetasunezko azterketa behin betiko izaeraz onartzen dute.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian.

**BOSGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, 2008RAKO IRURAKO JAI EGUN OFIZIALAK**  
**IZENDATZEA.**

Ekainaren 19ko 102/2007 Dekretuaren bidez, Euskal Autnomi Erkidegoko langileen 2008, urteko jaiegunen egutegia onartu zen. Dekretuaren 2.3. artikuluan ezarritakoan arabera, dekretua argitaratzen den hurrengo eguentik ahsi eta hilabeteko epesan egin behar dute tokian tokiko jaieguene proposamena udalek, eta beren lurralde ordekaritzetara bidali.

Aipatutako egutegia egiteko premia dela eta, tokian tokiko jai bati buruz proposamena jakinaraztea eskatzen du Euskal Gobernuak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, hilaren eguna eta jaiegunaren izen zehatza aipatuz, jaiegun hori Irurako udalerrira osoan indarrean egon dadin.

Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Irailak 29a, San Migel eguna izendatzen du, herriko ohiko jaia eta zaindariaren eguna.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioaren bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 15:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nazuzuen honek EGIAZTATZEN dut.